

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4079

EBAZPENA, 2020ko irailaren 21ekoa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez ematen baita 2020. urtean publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, digitalizatzeko eta zabaltzeko jardueretarako emandako laguntzen berri.

2020ko uztailaren 17an argitaratu zen EHAAn Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko uztailaren 8ko Agindua, publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu horren 13.3 artikulua dioenez, Kulturako sailburuordeak emandako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei banakako jakinarazpena egingo ez zaienik. Hortaz, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren ebazpen-proposamena ikusita, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Argitara ematea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko uztailaren 8ko Aginduaren babesean emandako dirulaguntza guztiak eta haien onuradunak. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.— Agindua ematea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 21a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2020ko urriaren 6a, asteartea

ERANSKINA

Onuraduna	Aurkeztutako programa	Zenbatekoa (€)
Indalecio Prieto Fundazioa	Concha Prietoren artxibo funtsaren deskribapena eta digitalizazioa (2. fasea)	9.035,00
Bellota Herramientas, S. L.	«Bellota Herramientas» enpresaren artxibo historikoaren funtsa antolatzea. Legazpi	12.000,00
Duque de Estrada Tejada, Ricardo	Duque de Estrada familiaren artxiboko Agurto eta Martinez de Morentin familiako artxiboaren deskribapena (3. fasea)	18.000,00
Duque de Estrada Tejada, Ricardo	Duque de Estrada familiaren artxiboko Agurto-Gastañaga familiaren artxiboa digitalizatzea	12.000,00
Murua Lezama-Leguizamon, M. ^a Carmen	Murua Etxeko artxiboa digitalizatzea (bukaera)	16.000,00
Sancho el Sabio Fundazioa	Yrizar familiaren artxiboa digitalizatzea (4. fasea)	15.272,62
Loiolako Santutegia (I. programa)	Loyola funtsa sailkatzea, ordenatzea eta deskribatzea. 4. fasea	13.032,58
Loiolako Santutegia (II. programa)	A. Otañoren korrespondentziaren bigarren zatiaren digitalizazioa (XX. mendearen 1. erdia)	13.650,00
Serrats Urrecha, Gonzalo María	Arriola-Urrecha (Rocaverdeko markesak) familiaren artxiboaren deskribapena eta digitalizazioa (bukaera)	15.400,00
Iñaki Izarzugaza Lizarraga	La Encartadako elkarrizketak digitalizatzea eta transkribatzea	1.824,00
Miren Ostaiska Castro Erkiaga	Murelaga ontziolako (Lekeitio) artxiboaren antolaketa	3.500,00
Destilerias M. Acha, fábrica de licores S.A.	Manuel Acha destilategien artxiboa	12.000,00
José Matía Calvo Fundazioa	Fundazioko artxibo historikoaren digitalizazioa	6.003,53
Luis Peña Ganchegui Artxiboa kultura elkarte	Artxibo funtsaren antolaketa eta deskribapena	6.400,00
Justo de la Cueva dokumentu eta artxibo gunea	Artxiboaren inbentarioa eta sailkapen-kuadroa	5.765,04
Aranzadi zientzi elkarte	Funts digitalak hedatzeko plana	2.120,00
Real Automóvil Club Vasco Navarro	Artxibo-funtsa antolatzea	4.986,00
Euskal Herriko Txistularien Elkarte	Artxibo-funtsa antolatzea, digitalizatzea eta zabaltzea	3.011,23
GUZTIRA		170.000